



WALT DISNEY JATORRIZ EUSKALDUNA OMEN ZAN

«Linea» egunkariak Frantzi'ko «Gaillac» erritik artu berri du idazki bat, au esanaz: Murtzia'ko Aiuntamentuak artu duan Walt Disney'ri oroitarrria jasotzeko erabakia, ontzat ematen du idazle onek. Eta bide batez, eskatzen du, izen sonatu orren azpian bere egizko izena jarri dezatela. Izen-abizen egiazkoak, auk omen-dira: Jose Gizao Zamora. Gizao abizen euskalduna omen-da ta Zamora Almeria'koa.

Ondoren, izen-abizen auen agiriak billa ditzatela eskatzen die egunkarikoiei, onela garbi gelditu dedin, Walt Disney gure tartekoa dala. Orra gure odeleko ustegabeko beste bat.